

B

BARREN



Europa trenez hogei egunetan

Mikel Arosa, Egoitz Ansola eta Julen Salaberria

lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Lanbide Elgoibar

Gabriel Krutzelaegi, 8

20870 Elgoibar

Tel.: 943 744 425

Faxa: 943 740 618

e-mail: elgoibar@lanbide.net

www.lanbide.net

Lan bidea

El camino
hacia el empleo



Lanbide, Eusko Jaurlaritzak eskuera jartzen dizun Euskal Enplegu Zerbitzua da eta lana bilatzeko prozesuan laguntza eta orientabidea eskaintzen dizu.

Beren lehen enplegua bilatzen ari direnei, langabezian daudenei, lan-merkatura itzuli nahi dutenei eta lanean arituta ere, enpleguz aldatu nahi dutenei zuzentzen gara eta baita langileak behar dituzten enpresei ere.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTI
DIBERTASIA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

EUROPAKO ELKARTEA
UNION EUROPEA



Erregula Fundu Soziala
Fondo Social Europeo

GUK *aek* EUSKALTEGIRA JO DUGU HONETARAKO:



3.maila=EGA



3.maila=EGA

*"No se conoce
la cultura de un
pueblo, si no se
conoce su lengua"*

- ✓ **MATRIKULA ERDIA ETA BEKA SISTEMA UDALARI ESKER.**
- ✓ **IZEN EMATEA 24A ARTE.**

Batzuetan,
biderik laburrena
da onena



...garena ikasteko!

ikasi euskara
eman izena *aek*-n

Aterketa ofizialak eta titulua homologatuta

Plaza Txikia,3 - Tel.: 943 74 13 32 - elgoibar@aek.org

Jaien balorazioa egiteko unea heldu da



Dagoeneko San Bartolome Jaiak bukatu dira, eta balorazioa egiteko ordua heldu da. Nire ustetan oso jai onak izan dira, eta, ondorioz, balorazio positiboa egiten dut.

Joan zen urteko ekintza berritzaile gehientsuenak errepikatu egin ditugu, eta oso harrera ona izan dutela uste dut. Ekintza erabat berritzaileei ere dagokienez, gauza bera esan dezaket. Gauetan eta arratsalde- iluntzeetan aritu diren taldeen maila oso ona izan da.

Izan diren ekintza eta ikuskizunetara jende ugari hurbildu da, eta, oro har, pozik gelditu direla esango nuke.

Jaietan parte hartu duen jendeak errespetua, ilusioa eta jaietarako gogoia izan du.

Era berezian, parte hartu

duten bertako taldeei doakie nire zorionik beroena. Egunen ordenari jarraituz, honako aipamen hauek egin nahi ditut:

- Parrokiako abesbatzaren partehartzea, bai Salbean eta baita San Bartolome eguneko mezatan. Lan bikaina egin dute. Zirraragarria Aita Madinaren *Aita Gurea*. Batez ere Alaitz bakarlari moduan aritzen denean.
- Dultzaineroen goizetako diana alaiak.
- Ohikoa den San Bartolome Eguneko Musika Bandaren kalejira. Eta zer esanik ez, prozesioko *Jerusalem* pieza.
- 75 urteko oroitzapenez beteriko sokadantza. Bai dantzari, txistulari eta baita omenduak ere ziur nago zerbait berezia sentitu dutela. Eskerrik asko Jon Lizarralderi eta Jose Inazio Sarasuari.
- Txiki Eguneko Mauxitxa txarangaren kalejira benetan aparta izan da. Ikaragarria hiru bonbo, lau-bost tronboi, beste horrenbeste saxofoi eta abar ikustea.
- Bukatzeko Elgoibarko kale kantariak aipatu nahi nituzke. Giro aparta jarri dute kaleetan zehar.
- Arestian aipatu dudan bezala, oso balorazio positiboa egiten dut. mila esker jaietan parte hartu duzuen elgoibartar guztioi.

Iñigo Zearsolo
(Kultura zinegotzia)

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Oso balorazio positiboa egiten dut.
Mila esker jaietan parte hartu duzuen elgoibartar guztioi”**

**BIDALI ZURE
OPORRETAKO ERRETRATUAK
ETA IRAILEAN ARGITARATUKO DITUGU**



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



OPORRAK BETI OPOR

Han edo hemen, gertu edo urrun, oporretan beti ondo. Bakoitzak bere neurriko oporrak antolatzen ditu, eta askotan nora joan izaten da garrantzi gutxien daukan kontua. Herritik irtetea eta egunorokoa ahaztea izaten da helburua. Kri-siak oporraldian ere eragina izan du, baina hala ere, Elgoibarko jende asko joan da kanpora.

Ainhoa Andonegi

INTER-RAIL: EUROPA TRENEZ HOGEL EGUNETAN

Julen Salaberria, Mikel Arosa eta Egoitz Ansola Europan zehar ibili dira. Koadrilako lagun batek gomendatu zien bidaia, eta Gazte Informazio Guneko arduradunak lagundu die bidaia antolatzen. Hogei egun egin dituzte, eta txikikeriaren bat kenduta, dena ondo irten da. Hori bai, gosea pasatu dute: “Dirua justu samar geneukan, eta lo egitea ala ja-tea aukeratu behar genuen”. Lo egiteari eman diote garrantzia. Turismoa egin eta Europako bazterrak ezagutzeko asko ibili dira, eta horretarako deskantsua ezinbestekoa zen. Ondorioz, supermerkatuan erositako atun kontserbekin eta ogiarekin pasatu zituzten egun gehienak. “Lau kilo inguru galduta etorri ginen”, adierazi dute, baina dagoeneko berreskuratu dute guztia.

Europan kontraste handiak ikusi dituzte. Suitza, esate baterako, garestia eta garbia da, baina beste herrialde batzuetan pobrezia handia dagoela konturatu dira. “Tren geltokietan eskale eta behartsu asko ikusi dugu. Euskal Herrian ondo bizi garelara konturatu gara”.

Inter-rail aukera polita da Europa ezagutzeko. Herrialde asko ezagutu dituzte gazte horiek, baina asko nekatu direla aitortu dute. “Gomendatzeko moduko bidaia da, baina argi eduki behar da zertara zoazen”. Euren argi zeukaten: turismoa egin, bazterrak ezagutu, eta juergarik ez. Helburua beteta etorri dira. Lekurik politena Kroaziako parke naturala irudituz zaie, zirrargarriena Auswisch, eta gutxien gustatu zaiena Innsbruck: “Dezepzionatu egin gaitu”.

Lagun artean egin duten estreinako bidaia izan da, eta esperientzia polita izan dela adierazi dute. Gosea eta nekea gainean izan arren, ez dute inolako hasererik eduki. Esaera zaharrak dioten bezala, gustuko lekuan aldaparik ez.



Hendaian hasita, hogeit egunetan ibili dira Europan zehar.



Ezkerreko erretratuan Budapest. Eskumakoa Auswisch-eko kontzentrazio-esparrua da.



Knosos (Kreta). Kondairak dioenaren arabera, palazio horretan bizi zen minotaurora, zezen burua zeukan gizakia.



*Santorini irla bolkanikoan ateratako erretratua. Eguzkiaren sarre-
ra ikustea oso tipikoa da Santorinin, eta asko gustatu zaie neska
elgoibartarrei.*



*Meteorako irudia. Greziako iparraldean dago, eta haitz erraldoi
horien gainean monastegiak daude. Fraideak eta mojak bizi dira
bertan.*

GREZIA: IRLAN ETA KONTINENTEAREN ARTEKO KONTRASTEAK

Leire Agirrebeña, Ibona Loiola, Amaia Urtzelai, Nerea Sanz eta Nerea Bastida Grezian egon dira. Orain dela urte eta erdi inguru hasi ziren koadrilan bidaia bat egiteko dirua aurrezten. Euren hasierako asmoa Karibe alde-
ra joatea zen, Kuba edo Mexikora, baina, he-
galdiak oso garesti zeudenez, Greziara joan
dira. Turismoa eta hondartza bateratu nahi zi-
tuzten. Irlak eta Grezia kontinentala uztartu
dituzte.

Leire eta Ibona gainontzekoak baino ha-
mabost egun geroago iritsi ziren Atenasera,
eta ez zitzaizkien Greziako hiriburua gehiegi
gustatu. Zikina eta gutxi zainduta dagoela

iruditu zitzaizkien. Akropolia ikusi zuten, “ikusi
egin behar delako”, eta irletara joan ziren. Or-
durako lagunak Grezia kontinentala ikusi zu-
ten, eta bostak batera joan ziren irletara. Lau
irla bisitatu dituzte: Kreta, Santorini, los eta
Mikonos.

Irlak turismorako prestatuta daude: Giro ona, parranda eta hondartza zoraga-
rriak. Santorini gustatu zaie gehien. Irla
bolkanikoa da, eta ilunabarra oso polita
iruditu zaie. Itsasontzian bidaiatu dute irla
batetik bestera, eta losetik Mikonoserako
bidaia oso txarra izan zen: “Haize handia
zegoen, itsaso zakarra zegoen. Denok
mareatuta amaitu genuen”. Deskantsua

hartzeko eta turismoa egiteko aprobetxa-
tu zuten irletako egonaldia.

Grezia kontinentala ezagutzeko auto
bat alokatu zuten. Estatuko tokirik esangu-
ratsuenak bisitatu dituzte: Olinpia, Mizenas,
Mistras, Nauplia eta Meteora, besteak bes-
te. Kilometro asko egin dituzte, eta bero
handia pasatu dute, baina merezi izan due-
la aitortu dute. Jende jatorrarekin egin dute
topo bidaiari zehar, eta dena ondo irten
zaie. Atenas inguruko suteak telebistaz ba-
karrik ikusi dituzte, eta ez dute inolako ara-
zorik eduki. “Hori bai, azken egunetan etxe-
koek etengabe deitzen ziguten suteekin
kezkatuta”.

ONS IRLA: PARADISUAN GALDUTA

Ons irla Galizian dago, irla atlantikoetako parke nazionalen. Vigo eta Pontevedra artean dago, Cies irla ezagunaren inguruan. Sei kilometroko luzera dauka irlak, eta neguan zortzi pertsona bakarrik bizi dira bertan. Pablo Garcian-diak eta Iñaki Garciak bertan pasatu dituzte hamabost egun familiakoekin.

Iñaki eta Pablo lankideak dira. Hogei urte daramatzate elkarrekin lanean, eta beste hainbeste elkarrekin bidaiatzen. Emazteak euren bi-tartez ezagutu zuten elkar, eta primeran konpontzen dira. Hasieran, bi bikoteak joaten ziren oporretan, baina gero seme-alabak iritsi ziren. Pablok bi seme dauzka, eta Iñakik bi alaba. Adinean ez daukate alde handirik, eta anai-arrebak balira bezala hazi dira. Aste Santuan eta udan egiten dituzte bidaiak. Italia, Portugal, Holanda, Frantzia eta beste hainbat lekutan izan dira elkarrekin.

Aurten, Ons irlan izan dira. Paradisuan galdutako egunak izan direla adierazi dute. Krisiaren eraginez lanean estres handia jasaten ari dira, eta lasaitasun bila joan dira. Leku ezin hobea da horretarako. 2:00etan argi indarra kentzen dute, eta eguerdiko 13:00ak arte ez dute berriz jartzen. 16:00ak arte lagatzen dute elektrizitatea, eta 19:00etan berriz kentzen dute. “Ez telebistarik, ez ordenagailurik eta ezta autorik ere ez dago. Umeak ere eguna antolatu behar izaten zuten euren jolasak entxufatu eta bateria kargatzeko”.

Urte osoan aurrezten dute bidaia egiteko, eta horrekin moldatzen dira ahal duten egun gehienak. Dena oso ondo antolatzen dute. Aurten, esate baterako, astebeterako janaria hemendik eraman dute, Ons irlan dagoen denda bakarra oso garestia da eta: “Seme-alabak bidali genituen sei euroekin meloia erostera, eta esku hitsik itzuli ziren etxera, bederatzi euro balio zituelako”. Egun batean itsasontzia hartu eta Buey herrira joan ziren, despentsa betetzeko erosketak egitera. Kasu



Atlantiko itsasoan dago Ons irla. Pablo Garcian-diak esandakoaren arabera, aldaketa klimatikoaren eraginez ura ez dago lehen bezain hotza. Beheko argazkian, Pablo Garcian-dia eta Iñaki Garcia, emazteekin.

honetan adiskidetasunak aparteko indarra dauka. Pablok eta Iñakik gainontzeko guztiak bezalaxe euren eztabaidak eta haserrealdiak izaten dituzte lanean, baina oso ondo bereizten dituzte lana eta adiskidetasuna. Enpresatik kanpo ez dute inoiz lanari buruz hitz egiten, eta eurentzako adiskidetasuna gauza guztien ginetik dago.

Krisiak izan du eragina oporretan



Herria zaintzen jende gutxi gelditu da, baina oporrak ez dira beste urteetakoak bezalakoak izan. Herriko bi bidaia agentziekin hitz egin du BARREnek, eta biek gauza bera esan dute: “Jendea joan da oporretan, baina gertuago eta egun gutxiago”. Lehen hilabete osoa kanpoan pasatzen zuenak aurten hamabost eguneko bidaia egin duela azaldu dute. Jende gehienak astebeteko edo hamar eguneko bidaiak egin ditu.

Espainia eta, batez ere irlak izan dira elgoibartarrek aukeratu dituzten lekuak. Kanariar uharteak eta Balearak izan dute estimu handiena. Jende gehiena abuztuan joan da oporretan. Agentzietako langileen arabera, abuztuko bigarren eta hirugarren asteetan joan da jende gehiena kanpora. “Lehenengo astean herriar askok lan egin zuten, eta sanbartolomeetarako jende asko etortzen da bueltan”. Krisiaren eragina igarri dutela aitortu dute, baina nahiko gustura gelditu dira udaldiak eman duenarekin. Iraila ere nahiko hilabete ona izaten da, baina gero, Aste Santura arte, beherakada handia nabaritzen dute.



Txankakuako autobus geltokitik gora doazen eskailerak oso arriskutsuak dira: “Txankakuako autobus geltokitik Aizkorri kalerako eskilaerak oso egoera txarrean daude: zikinak eta puskatuta daude, hain zuzen ere. Aizkorri kalean 60 etxebizitza daude, eta bizilagun asko ibiltzen gara eskailera horietan gora ete behera. Udaletxean jarri izan dugu kexa, baina ez digute kasurik egin. Badirudi Aizkorri kaleko bizilagunok dena gure poltsikotik ordaindu behar dugula. Udalarri eskailera horiek konpontzeko eskatu nahi diogu”.



Melitongo zubiko zebra-bidea oso arriskutsua da: “Albitxuriko industriagunetik autoak eta kamioiak oso bizkor etortzen dira, eta askotan ez dira zebra-bidean geratzen. Ingurune horretan oinezko asko ibiltzen da, eta oso arriskutsua da. Abiadura moteltzeko zerbait jarri behar harko lukete, ezbeharren bat gertatu baino lehen”.



Txalo bat Mintxetako arduradunei, Realaren 100. urteurrenean kirol instalazioetan jarritako musikagatik: “Astelehenean Realak 100 urte egin zituen, eta Mintxetan giro bikaina zegoen. Talde txuri urdinaren bandera harro-harro zebilen haizearen eraginez, eta bozgorailutik Realeko ereserkia entzuten zen. Abestia hainbat bertsiotan jarri zuten, gainera. Realzaleontzat egun polita izan zen”.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



I. URTEURRENA

NORA REY NOGALES

*Nora maitea, egunero zaude gurekin.
Gure bizien zoriona izan zinen.
Sekula ere ez zaitugu ahaztuko,
laztana.*

2008ko abuztuaren 11n hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, astelehenean, irailak 14, arratsaldeko 19:00etan, Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Andereño Jesusa

Ez dakigu ondo, hirugarren eta laugarren maillia izan ziran, edo lehenengua eta bigarrena. Baina tokau jakun guri ere zurekin pare bat urtian egotia.

Ondo akordatzen jaku zela tira eitten ziñon hari belarritxik. Eta zela beste hari esaten ziñon egin bihar zabana, eta ez zabana.

Egunero-egunero, egunonak emanda hasten gendun eguna. Gelara sartu eta din-danonak jo orduko hasiko giñan zeozertan.

Goxo-goxo eta irribarre batekin hasten gendun eguna, bai, baiña izan ziran, hasarre amaitutakuak ere. Ez zan eta erreza izango gu bezelako hogeit bat gobernatzia, ezta? Baiña gogor eginda batzuetan, belarri tirakada batekin edo besteekin, eta umore onez, lortu zendun guri ere, bihar gendun moduko umiak izaten laguntzia. Eta ez gara bakarrak izan, ez horixe. Elgoibarko ume mordo bat pasau gara zure gelatik.

Baiña dana ez da betiko, eta, umiak mailla batetik bestera juaten garan moduan, pertsonak ere jua eta etorri egitten gara.

Eta holaxe jua zara. Gelan erakusten zendun beste inddar euki dozu gelatik kanpo ere. Jenixuakin egin diozu aurre etorri dan danari, eta irribarrez agurtu gaittuzu zure ikasle izandakuak, kalia ikustian.

Horregaittik, urtiekin ahiztu ez jakuzen hórrek irribarrez gogoratuko dittugu geuk ere.

Zure omenez, andereño Jesusa. Eskerrik asko.

Zugandik ikasitxako batzuk

Mila esker denoi!

San Antolin auzoko Kaxeta elkarteak 2009ko jaietan lagundu diguzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu: Usatorre tabernari, Udalari, Udaltzaingoari, Gurutze Gorriari, Julio Bueno edari banatzaileari, Altzolako Urei, Altzolako Artxingaz elkarteari eta bereziki antolatutako ekintza guztietan parte hartu duzuen guztioi!

San Antolingo auzokideen elkartea

Errepresioa ez da bidea

Muga guztiak gainditu dituen errepresiorik basatienaren lekuko izaten ari gara azken hilabeteotan Euskal Herrian:

Apirilean, Jon Anza euskal herritarra *desagertu* zen. Maiatzean eta uztaillean, Lander Fernandezek eta Alain Berastegiren bahiketak, Polizierekin kolaboratzeko presioak eta mehatxuak egiñez. Abuztuan, Remi Aiestaran Villabonako alkateordea Ertzaintzaren bortizkeriaren eragiñez hila. Eraso faxisten ugaritzea. Bilboko txupinerari mehatxuak, Lasa eta Zabala-ren oroigarrietan eginiko erasoak, Iruñeko margoketak... Konsuelo Agirrebarrena, 61 urteko emakumea espetxeratu dute Lizartzako alkate kolpistaren aurrean protesta egiteagatik. Euskal preso politikoaren argazkiak ikustezin bilakatu nahi dituzte, ehundaka argazki bahituak, dozenaka pertsona identifikatuak, bazkari eta triki-poteoen kontrako oldarraidiak... Elgoibar-

ko jaietan Ertzaintzaren jarrera: azpeitiar bat identifikatu zuten presoaren aldeko kamiseta bat eramateagatik eta beste bat larrialdietara bidali borraekin egundokoak eman eta gero. Herriko bi gazte jasotako zitazioak, gaztetxe kanpoan identifikazioak, pankartak eta kartelak kentzen... Gaztesarearen aurkako epaiketak. Musikariak, bertsolariak, feministak, ikasle eta gazte mugimenduko kideak Auzitegi Nazionalera deituak.

Guztik horrek nekatu arte errepikatutaguten garaipen polizialaren egarri ase ezinari erantzuten dio. Desesperazioak ekarri du bortizkeria poliziala areagotzea, espetxe politika muturrera eramatea, oinarriko askatasun demokratikoak hankaz gora uztera eta herritarrek bahitzera.

Komunikabide publikoek plangintza errepresibo horren logikan lan egiten dute Euskal Herrian, eta gertaera errepresibo larrienak ezkututzen dituzte. Alderdiak beste alde batera begiratzen dute bitartean.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak benetako kezka azaldu nahi du herri honetan bizi dugun egoeraren aurrean. Presoei elkartasuna adieraztea ez da delitua, oinarriko eskubidea da, bai antolatzea, mobilizatzea, elkartasuna adieraztea, bisitetara joatea edota gutunak bidaltzea. Beraz, guk horrekin jarraituko dugu, eta herritarrei horrelakoen aurrean ez beldurtzeko deia egiten diegu, errepresioari bidea mozteak erraztuko baitio konponbide eta bakeari bidea.

Elgoibarko AAM

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxe: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Justo Arriola

Bertold Brechtek sujerittu juan: Gobernua ez badok herrixarekin fixatzen, zergaittik ez disolbittu eta beste herri bat hautatu? Holakorik asmatu

ez danez, hor dabixaz sorgin ehi-

zan, pentsaera ezberdiñekuak giltzapetzen, egunkari-irratixak ixten, hauteskundietan tranpa egiten, torturatzten, senidien maitsuak zigoritzen. Legia bete deitzen eskatzea ere legez kanpokua dok.

Kale-burrukiaren garai zaratatsuenetan ere ez zittuan hainbeste kaputxadun ikusten herrixetako jaixak berotzen. Hala ere, oingo erasuak zigor gabekuak jirudixek, zaurittutakuak ezingo dittue erasotzailiak ezagutu-eta. Sikiera zenbaki ikusgarri bat jarriko baliue polizien uniformiei.

Antza (nun?) danez, laster Joseba Sarrionandiaren eta Alfontso Sastreren liburuak pillu baten erreko jaittue.

Eta in-komunikabidiak play-backa piztuta buru-garbiketa etengabian. Ugaztunen lurralde-politika.

Hau guztiau herri, tribu, espezie, etorkin, alargun, gazte... lagun guztixok jaukagun autodeterminazio eskubidia ez onartziagaittik. *Dat is de kuestion.*

“Noiz lagako jauau Aresen eraginpian ibiltziari eta Eros besarkatu?”

Idazluma berbera jarabixek bai biolentziaren gaitzespena siñatze-ko bai armen salmentia baimentze-ko, baiña terroristak bestiak beti, jaikiña. Ume eta emakume tamildarrak, sahararrak edo palestinarrik frijitiak Barne Produktu Gordina igo eragitten jok. Negozio garbi hori zergaittik ezkututzen juek Sekretu Ofizialen legiarekin?

Noiz lagako jauagu giza primatiok Aresen eraginpian ibiltziari eta Eros besarkatu?



Arkaitz Irureta

Barkatuko didak, baina oraingoan oker habill! Ez al dakik adierazpen askatasuna Venezuelian falta dela, disidentzia kartzelaratu dutela Kuban, zibilen kontrako jazarpnarak egin dituztela Txinan, torturak Guantanamo, bizi osoko kartzela zigorrak Kanbodian, gerrak bakea ekartzeko direla? *Daños colaterales* zer dan ez dakik, antza, eta sasi-pandemiak sendatzeko botikak erostea munduko gosearekin bukatzea baino garrantzitsuagoa dela?

Espabila hadi, NATOren eta informazioaren Europan bizi gaituk, hi! Gerrak ez dituk antzina bezala interesengatik, demokrazia ezartzeko baizik.

“Espabila hadi!”

Ez duk antza poltrolitika jarraitzen”

Hemen, hizkuntza eskubideak bermatzeko gaztelera jakin behar diagu, desagerketak GALen garaian hituan, kaputxadunak txosnetara jendeak izurik eduki ez dezan etortzen dituk, eta Guardia Zibila ere euskaldunok babesteko zegok. Ez duk antza poltrolitika jarraitzen!

Brehtekin hasita, Niemollerren esaldi hau falta zaik hire ipuin horiei ginda jartzeko: “Komunisten bila etorri ziren, eta komunista ez nintzenez, ez nuen ezer esan. Gero juduen bila, eta ez nintzenez... Azkenean nire bila etorri ziren, eta ordurako beranduegi zen”.

Halere, onartu behar diat zuen, indigenon kosmobisioa kuriosoa behinik behin badela, izenaren eta izanaren arteko lotura hori egun ere Aresekin betetzen dela erakutsi didanean harritu nauk.

Baina herriko arazoek zer pentsa ematen zidatek; Eros aspaldi desagerturik dabilenez, batzuk ezin ditek neskalaguna aurkitu zinera joateko. Ez ote hori euskal arazoa?



Elgoibarko Udala



Mausitxak irabazi du Ordiziako Gazta Lehiaketa hirugarren aldiz

Urrezko Gazta saria ere eskuratu dute, orain arte inork lortu ez duen saria

Eguztenean izan zen Ordiziako Gazta lehiaketa, eta Mausitxa baserriko gazta izan zen irabazlea. 2005ean eta 2007an ere saria elgoibartarrantzat izan zen. Gainera, hamar urteren barruan hiru aldiz irabazteagatik Urrezko Gazta saria eman diote, orain arte inork lortu ez duen saria.

Mausitxa baserriko Iñaki Ansola pozez zorutzen zegoen: “oso zaila izaten da hemen irabaztea, gaztagile guztiak produktu onena ekartzen dute lehiaketara eta ez genuen espero”. Gazta erdiagatik 12.000 euro ordaindu zituen Super Amara supermerkatuen kateak.

Mausitxako gaztarentzat oso urte ona izaten ari da 2009a: joan zen astean Gipuzkoako ardi gazta lehiaketa irabazi zuen Legazpin eta Elgoibarko eta Plentziako txapelketetan bigarren saria lortu zuen. Gazta denboraldi erdia pasatu da, eta elgoibartarrak gustura daude. Aurrera begira hainbat herritako gazta txapelketetan hartuko dute parte, eta azaroan Euskal Herriko txapelketan.



Sanbartolomeetan ibaira erori zen bigantxari omenaldia egingo diote urriaren 2an

Sanbartolomeetako gazteen egunean, ibaira erori zen *Gorri* bigantxa (argazkian). Txankakua zubitik bederatzi metro inguruko jauzia egin eta Deba ibaian geratu zen larri zaurituta. Bizkar hezurra hautsita zuenez, garabiaren laguntzaz atera behar izan zuten ibaitik. Zaurien larritasuna zela eta, aberea sakrifikatu egin behar izan zuten. Jabeek omenaldia egingo diote urriaren 2an Sigma jatetxean egingo dute afaria, eta zezen okela jarriko dute jateko. Hori bai, ez da *Gorri*ren haragia izango. Interesatuek Sigma jatetxean bertan eman dezakete izena (943 748 531)




Kamioi batek istripua izan du San Antolingo errotondan



Txatarraz kargatuta zihoan kamioi batek istripua izan zuen martitzenean, hilak 8, San Antolineko errotondan. Autopistatik irten eta Azkarateko bidera zihoala, kamioiaren kontrola galdu zuen gidariak, eta irauli egin zen. Gidariari ez zitzaion ezer larririk gertatu, baina kamioiaren karga lurreen botata gelditu zen.

Aste honetakoa ez da ingurune honetan gertatzen den estreinako istripua izan. 2007an trailer handi batek istripu gogorra izan zuen, eta 2006an Azkaratetik behera frenorik gabe gelditu zen kamioi bat Deba ibaira erori zen.

Pertsonaia Jaime Martinez



Jaime Martinezek hirugarren postua eskuratu du Espainiako Arku Tiratze Txapelketan. Castellonen jokatu zen txapelketa joan zen asteburuan, eta 180 lagunek hartu zuten parte, horietatik hamabost Jaime Martinezen kategorian. Bero handia egiten zuela azaldu du elgoibartarrak, eta proba gogorra izan zela. Animalia formako 80 dianako ibilbidea egin behar zuten partaideek. Azken dianara arte, laugarren sailkatuarekin berdinduta joan zen Jaime, eta azkenengoan erakutsitako punteriak eman zion brontzezko domina.

Lekua Guass dantzalekua

Urriaren 31ra arte behintzat, Guass dantzalekua zabalik egongo da. Herrian bolo-bolo zebilen diskoteka irailaren 5ean itxiko zutela, baina dantzalekuko jabeek gurtatu egin dute informazio hori. Roberto Azpillaga da jabeetako bat, eta, BARRE-Ni esandakoaren arabera, urriaren 31ra arte daukate indarrean lokalaren errenta kontratua, eta euren nahia negoziarekin aurrera segitzea da. Joan zen zapatuan 20. urteurreneko jaia egin zuten, eta datozen asteburuetarako programazioa ere lotuta dutela adierazi du.

Irudia Bide gorria

Andikanotik Maltzagara arteko bide gorria zabaldu dute. 2,6 kilometroko luzera dauka bideak, eta 1.250.000 euroko kostua izan du. Oinezkoentzat eta txirrindularientzat prestatutako bidea da, eta egunotan jende asko dabil bertan. Aurrerantzean, beraz, elgoibartarrek paseatzeko beste leku bat izango dute.



Ertzaintzak jaietan izan duen jarrera salatu dute

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek Ertzaintzak sanbartolomeetan izan duen jarrera salatu dute. Madalako txosna gunean agertu izana, hainbat herritar identifikatu izana eta elkareratzeko egiteko jarri dizkien oztopoak salatu dituzte, besteak beste.

Hip-hop ikastaroa antolatu du Kirol Patronatuak

Kirol Patronatuak hip-hop dantza ikastaroa antolatu du ikasturte berrirako. Nagusientzako eta umeentzako ikastaroak eskainiko ditu. Klaseak irailaren 14an hasiko dira. Interesatuak 943 744 415 telefonon eskuratu dezakete informazio gehiago.

AEKn izena emateko epea zabalik dago

AEK euskaltegiak ikasturte berrirako matrikula epea ireki du. Euskalduntze orokorra, EGA, hizkuntza eskakizunak eta titulazio homologatuak eskainiko dituzte. Matrikula ordaintzeko laguntzak egongo dira. Informazio gehiago eskuratzeko, 943 741 332 telefonora deitu daiteke.

Gure denda, gure poza kanpainaren lehen saria

Cristina Elkoroiribe izan da *Gure denda, gure poza* kanpainako lehen saritua, eta tolesteko bizikleta jaso du. Poltsa berrerabilgarriak erabiltzeagatik sariak ematen dihardute kanpainaren baitan. Hurrengo zozketa irailaren 25ean egingo dute, eta beste bizikleta bat izango da saria.



Andikanotik Maltzagarako bidegorria amaitu dute.

Zer iruditu zaizu Elgoibartik Maltzagara egin duten bidea?



Mari Tere Arriola
74 urte, etxekoandrea

Oso ondo dago, ederra da. Ireki zutenean hasi nintzen hona etortzen eta izugarri gustatu zait. Amaieraraino iritsi naiz, eta nahiko erraz egiten da bidea. Hala ere, jarlekuak behar dira. Jende asko etortzen da paseatzera. Elgoibarrek behar zuen horrelako leku bat.



Ana Rubio
35 urte, dendaria

Asko gustatu zait. Bidea amaituta dagoenetik, aste honetan etorri naiz lehenengo aldiz, eta oso ondo dagoela iruditu zait. Lehen ez zegoen asfaltatuta, eta euria egiten zuenean lokatza egoten zen. Ez naiz amaieraraino joan, baina gustura ibili naiz.



Jose Nogales
68 urte, jubilatua

Ederra geratu da. Jende guztiari gustatu zaio, eta nire ustez ere oso ondo dago. Azkenaldian Elgoibarren egin duten obrarik onenetakoa da, nire ustez. Eguzkia egin arren, gerizpe asko dago eta paseatzeko leku bikaina da. Bizikletan ere jende asko dabil.



Emilio Cid
78 urte, jubilatua

Ondo dago. Iturria eta jarleku batzuk ere badaude erdi bidean, baina besteren bat ere jarriko nuke. Poliki-poliki amaierara arte iritsi gara. Sasoiari gaudela! Oraindik argia jartzea falta da, baina obra guztia amaitzen dutenean, primeran gertuko da.


I. URTEURRENA

JOSE MARI IGARTUA ARIZMENDI

"Hamaika"



*Ze eskubidez itzali dute,
"Hamaika" zure irriparra,
gazte izanik azaldu zendun
footballarien harra.
Talde osoak eskatzen zuen
"Hamaika" zure beharra,
football zelaian eta gurekin
zuk utzitako indarra,
dira zu gabe, bizi beharko
degunon babes bakarra.*



2008ko irailaren 10ean hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 12, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan. Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.

Gure berbak

Hiztegixa: bedarrak eta landariak (4)

- ◆ **IODO-BEDAR, iodo-bedarra:** Sendabelar mota bat, ebakixak-eta sendatzeko erabiltzen dana. **Ebagi-bedar** ere esaten jako.
- ◆ **IRISAGAR, irisagarra:** "Membrillero".
- ◆ **JERANIXO, jeranixua:** Geranioa, zaingorria.
- ◆ **KALAMO, kalamua:** "Cáñamo".
- ◆ **KEIXA, keixia:** Gerezia, fruitua eta arbola. **Keixa-kordia:** gerezi-mordoa ("racimo de cerezas"). Gerezi klase batzuk dira **kindak (kinda garratxa), anpolaxak...** **Sasoiak keixak:** gauza bakoitza egitteko garai jakin bat daguala adierazteko esaeria.
- ◆ **KERTEN, kertena:** Landare baten zurtoiña.
- ◆ **KIPULA, kipulia:** Tipula. **Kipula-burua.**
- ◆ **KIRU, kirua:** Lore horia duen landarea, otearen antzekoa.
- ◆ **KONIFLOR, koniflora:** Azalorea. *Ekarriko dozu letxuba batzuk ero, porua neguan, azia, koniflora, azalgia, eskarolia, daretik hartzen dot nik.*
- ◆ **KOROSTI, korostixa:** "Acebo".
- ◆ **KRABELIÑ, krabeliña:** Krabelina, "clavel".
- ◆ **KUKU-PRAKA, kuku-prakia:** Lora gorrixak txintxilik dittuan landaria, "digital"; sendabelar moduan ere erabiltzen da, bihotzeko gaitzetarako.
- ◆ **KURUNTZUN, kuruntzuna:** "Albaricque pérsico".
- ◆ **LANPERNA, lanpernia:** "Galamperna", txapel handia duen perretxiko zuria.
- ◆ **LARANJA, laranja:** Laranja, fruitua eta arbola.
- ◆ **LARROSA, larrosia:** Arrosa.
- ◆ **LETXUBA, letxubia:** Uhaza. **Letxuga** aldaeran ere erabiltzen da.
- ◆ **LIZAR, lizarra:** "Fresno".
- ◆ **LUR-HUNTZ, lur-huntza:** Lurrian hazten dan huntz klasia.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1939

Aste honetako erretratu zaharra Katalotza familiako kide batek ekarri du BARREnera. Egun hartan senitarteko ospakizuna egin zuten, eta baserriko atarian atera zuten argazkia. Gogora ditzagun erretratuan azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Angel Krutzelegi, Maria Astigarraga, Juana Krutzelegi, Crispin Astigarraga (†), Tomas Astigarraga (†), Joxepa Astigarraga (†), Dominga Astigarraga (†), Jose Krutzelegi (†).

Behean, ezkerretik eskumara: Antonio Astigarraga, Valentin Astigarraga (†), Isidro Astigarraga, Gabriela Juaristi (†), Antonia Arozena (†), Jose Mari Astigarraga.



ESKERTZA

MARCELINO MIGUEZ PEREZ

2009ko irailaren 4an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ATEZ ATEKO BERRIEMAILEA

Erlojuaren kontra bizi da Modesto Oliden, arrapaladan gau eta egun. Goiza argitu aurretik mendarorrei egunkaria etxera eramateko ardura du, eta hemezortzi urtean apenas egin duen hutsik. Goizean goiz ekiten dio lanari, ilunpetan artean, eta eguzkia sartzeko orduan ere, erosketetarako orga txikiari tiraka ibili ohi da, han eta hemen saldu gabe gelditu diren egunkariak batzen. Urtean hiru jaiegun ditu, baina ez da kexu, hala ere. “Sasoian mantentzeko balio dit lan honek. Izerdia botatzeko, horretarako ordaindu beharrik gabe”. Ez dauka lagatzeko asmorik. “Kasta gogorrekoa naiz. Nire gurasoek ere 90 urtetik gora hartu zituzten”, nabarmendu du.



Egunkari jakin bati harpidetuta daudenek ez ezik, herrian hala eskatu duten guztiek jasotzen dute etxean egunkaria goizean goiz, gehigarri bat ordainduta. Horretarako, elizako kanpaiek goizeko laurak jo bezain laster abiatzen da. *El Correo* ez beste egunkari guztiak Aizpe elkarteko atarian jasotzen ditu, eta hantxe hasten du eguna.

Dena neurtua du, baita hango egonaldia ere. Bezperako egunkariak pilatu, albaranak osatu, eguneko egunkariak multzoka sailkatu, mokadutxo bat jan eta aurrera. Azpilgoetan bertan hasten du banaketa, nahiz tarteka salbuespenak egin behar izaten dituen gauak berezko dituen arrazoiengatik. “Asteburuetan, Azpilgoetan erretiratu gabeko gazte asko dagoenean, ibilbidea aldatzen dut”. Gauetz lan egitea ez da samurra, eta are gutxiago parranda giroan.

Maite du gaua, hala ere. Asteburuetan, behin baino gehiagotan, etxeratu ezinda dabilzanak izan ohi ditu lagun bere ibilbidean. “Nor zein ordutan etxeratu den jakiteko galdetu niri”, dio irribarretsu. Ez hori bakarrik. Txandaka ari diren askoren lan-ordutegia ere ondo baino hobeto daki. Mendaroko gaueko zaindaria dela dio, broma antzean. “Beti ezin behar den lekuan egon, baina”, dio horren harira. Ondo gogoan du, esaterako, orain bost bat urte herriko jaietan, santanetan, egunkari mordo bat errauts bihurtuta topatu zituenekoa. “Ganberrada batzuk egin dizkirate. Egunkariak ezkutatu, ale batzuk sutu, beste batzuk teilatura bota, eta baita lapurtu ere. Asteburuetan egunkariak ekarri ohi dituzten gehigarriak ere kendu izan dizkirate pilatuta dauden lekutik”. Halakoetan, bezeroei behar bezalako

zerbitzua eman ezinak amorrarazten du gehien.

Harreman ona du herritarrekin, eta “etxean ezkutatuta bizi direnak” ez beste guztiak ezagutzen dituela dio, harro. 1991. urtean egunkariak banatzeari ekin zionetik hona, asko hazi da Mendaro, baina “bertakoak” ondo ezagutzen ditu. “Jende asko bizi da hemen gainerakoekin harremanik ez duena. Lo baino ez dute egingo hemen, kalean apenas ibiltzen direlako. Eta hori mendarorrek zabalak gara, ez pentsa!”, dio. Gabonetan jasotako bonboi eta puro banakak ekarri ditu gogora. “Ondo ezagutzen naute eta ondo ezagutzen dituzte nire bizio txikiak ere, tabakoa eta...”

Tarteka etortzen zaio egunkaria jaso nahi duen berririk ere, eta bere aurrekoek osatutako zerrenda osatuz doa. Alejandro

“Nor zein ordutan etxeratu den jakiteko galdetu niri”

Urruzolak lagatako zerrendarekin hasi zen lanean, Pepita Abarketerokuak urratutako bideari segika. “Pepitak estanko bat zeukan, eta jendea lanetik irteten zenean hantxe jarri ohi zen atarian egunkariak saltzen”. Estankoa itxi zenean, Javier eta Alejandro Urruzola aita-semeeek jarraitu zuten, baina etxez etxe haiek. Gero ekin zion berak, atez ate lehenengo, eta ondoren baita ospitalean ere.

Ordurako bazegoen ospitala, eta baita estanko moduko bat ere. Hura zabalik egon zen bitartean, bera arduratu zen hara egun-

kariak eramaten. Hura itxi zutenean, berriz, ospitaleko atarian saltzen hasi zen. “Gerentek ez zidan barruan egoten lagatzen, eta kanpoan egoten nintzen”. Orain ere, taberna kanpo aldean egoten da, goiz parte osoa. “Leihondoko mahaia hartuta daukat, eta uda nahiz negu hemen egoten naiz. Haizeak hartzen nau estu, baina bestela gustura nago ni hemen. Barruan baino nahiago hemen, berotan baino hobea”. Ez dauka, baina, haizez aldatzeko asmorik. Egunkariak banatu, eta urtebetez, Aizpeko bodegari lanak egingo ditu, “sasoian mantentzeko”.

0 eta 2 urte bitarteko hamazpi ume matrikulatu dira Mendaroko haurreskolan



Mendaroko haurreskola joan zen barixakuan zabaldu zuten. Garai bateko bizkotxotegiaren eraikin berean dago haurreskola, eta 0 urtetik 2 urte arteko 21 ume hartzeko prestatu dute. Garai bateko adreiluzko labe handiaren lekuan mahai eta aulki txikiak daude orain, eta, orduko tresneriaren lekuan, mota guztietako jostailuak. Proiektuan jasotako moduan, labea hauts egin eta orduko makineria asko saldu egin dituzte, haietako asko berri zeudelako.

Barixakuan hasi zuten egokitzapen aroa bertako lehenengo apopiloek. Hamazazpi ume daude matrikulatuta, baina haie-tako batzuk baino ez dira hasi oraindik. Gehienak urtebete eta 2 urte bitarteko haurrak dira. Berez, adin tarte hortarako kupoa —hamahiru lagunekoa— beteta dago jada. Behar zena baino batek gehiagok izena eman du, eta Udalak ume hori 0 eta 1 urte bitarteko mailan hartzeko eskaera jaso du. Oraindik, hala ere, ez dute erantzunik jaso.

Salegi eta Agirregabiria trontzalariak, laugarren

Unai Salegi eta Juanjoxe Agirregabiriak laugarren egin dute II. mailako Euskadiko trontza txapelketan. Joan zen zapatuan jokatu zen txapelketa Arraiotzen (Nafarroa), eta Andoni Rezabal eta Aitor Roteta gipuzkoarrek jantzi zuten txapela, lau ordu eta berrogeita hamar minutuko denbora eginda.

Julia Agirrek bigarren egin du Olaberrian, kart-etan

Julia Agirrek bigarren egin zuen joan zen igandean Olaberrian jokatu zen kart *challenge*-an. 11 urte ditu Agirrek, eta orain arte jokatu-tako lau probak kontuan hartuta, bera da lehenengo. Etzi jokatu da hurrengo proba, Hondarribian, kirol portu ondoko zirkuituan.

Mauro Gonzalez gailendu da ehiza xehe txapelketan

Joan zen larunbatean jokatu zen Zahatzu Mendin Kilimon Zahar eta Ehiza eta Arrantza elkarteek antolatutako XII. ehiza xehe txapelketa, eta Mauro Gonzalez izan zen bertan garaile, zortzi faisai ehizatu-ta. Oskar Goikoetxea eta Imanol Bastida sailkatu ziren bigarren eta hirugarren, hiruna faisairekin.

Aire libreko margo lehiaketa jokatu da hilaren 27an

Mendaroko margo tailerrak aire libreko margo lehiaketa antolatu du irailaren 27rako, Udalarekin elkarlanean. Lana egiteko era eta neurriak libreak izango dira, baita materialak eta euskarriak ere. Sari nagusia 600 eurokoa izango da, eta ondoko biak 300na eurokoak. 14 urtetik beherako lehenengo eta bigarren sarituek pintura materiala jasoko dute.

Parte-hartze handia eta giro bikaina San Antolin jaietan

Arriagako lehen herri krosean 41 lagunek parte hartu zuten



San Antolin jaiak ospatu zituzten joan zen asteburuan Arriaga auzoan, giro paregabean. Oliba hezur eta txapel jaurtiketa, herri kirolak, bertso afaria, erromeria, eta aurten baita lasterketa herrikoia ere. 41 lagunek parte hartu zuten, eta Joseba Altuna (20:03) eta Pilar Lama (30:29) gailendu ziren. Auzokoen artean azkarrena Aritz Telleria gaztea izan zen. Errifen zozketa ere egin zuten. 4.341 zenbakiari egokitu zaio Kanariar uhartetarako bi lagunentzako bidaia —Erreserbakoa, 4.688—, eta 3.147 zenbakiari jakiz betetako karretilla —Erreserbako zenbakia, 2530—. Hona hemen jaietako irudi batzuk. Argazki gehiago: www.elgoiBARREN.net



Goikoetxe, oliba hezurra jaurtitzen.



Lehenengoz antolatu zuten herri lasterketa, eta parte-hartze handia izan zen.



Txapel jaurtiketak ikusmin handia sortu zuten.



Tubik marka guztiak hautsi zituen lasto-jaurtitzen.



Gau giro aparta lagun, jende ugari batu zen erromerian.



Aimar Irigoien, 125 kiloko harriari heltzeko gertu.



Herri lasterketan parte hartu zutenetako batzuk, sariak banatu berrikan.

Uztailean eta abuztuan...

JAIOTAKOAK



Markel Kapanaga Alvarez Ekainak 29
Aitor eta Ainara



Mikel Zubiaurre Osoro Uztailak 23
Aitor eta Iratxe



Estibxu Arregi Ansola Uztailak 28 Joseba
Andoni eta Beatriz



Enaitz De la Horra Ibañez Abuztuak 11
Eneko eta Maitane



Jon Mancebo Iriondo Uztailak 7
Juan Carlos eta Lorea



Haizea Aizpuru Ondarra Abuztuak 30
Gorka eta Ainhoa

Imanol Galarraga Varona Uztailak 9
Guillermo eta Nekane

Xabat Ibirriaga Izagirre Uztailak 9
Gaizka eta Maite

Ainara Roman Trinidad Abuztuak 18
Manuel eta Iratxe

Aratz Gandiaga Etxeberria Uztailak 9
Iban eta Nerea

Asier Eguren Gomez Uztailak 14
Aitor eta Noelia

Oihan Fernandez Garate Uztailak 18
Alberto eta Ainhoa

Elene Fernandez Garate Uztailak 18
Alberto eta Ainhoa

Paula Calvo Villalobos Uztailak 29
Alvaro eta Cristina

Adel Balsara Merino Uztailak 27
Antonio eta Alicia

Mouhcine Fathoun Uztailak 30
Hicham eta Siham

Aner Raña Urbieto Abuztuak 3
Juan Carlos eta Ainhoa

Asier Arteaga Ferreira Abuztuak 2
Jorge eta Esmeralda

Unax Martin Hernando Abuztuak 11
Raul eta Yolanda

EZKONDUTAKOAK

- Luis Medina eta Oihana Chico Uztailak 4
- Ivan Larrañaga eta Idoia Agirrego Uztailak 4
- Jose Antonio Alonso eta Sarai Bilbatua Uztailak 11
- Josu Aitor Egiguren eta Nerea Loiola Uztailak 18
- Ibon Garate eta Maryalex Lopez Uztailak 18
- Jose Antonio Agirre eta Andone Carrascosa Abuztuak 1

HILDAKOAK

- Marcos Zabala Bernedo • 84 urte • Uztailak 9
- Trini Lete Ugarte • 84 urte • Uztailak 14
- Antonia Gallastegi Osoro • 83 urte • Uztailak 18
- Jesusa Irastorza Iturriaga • 67 urte • Uztailak 23
- Jose Domingo Arrillaga Arrillaga • 87 urte • Uztailak 30
- Manuel Unzueta Uribetxeberria • 81 urte • Abuztuak 1
- Pastora Ansola Arzuaga • 92 urte • Abuztuak 10
- Maria Teresa Iriondo Leturiondo • 72 urte • Abuztuak 10
- Begoña Alzola Zubiaurre • 73 urte • Abuztuak 13
- Nicolas Lopez Atienza • 75 urte • Abuztuak 17
- Ignacio Kortaberria Ansola • 69 urte • Abuztuak 18
- Jose Maria San Martin Maguregi • 81 urte • Abuztuak 20
- Miguel Loiola Elkoroiribe • 49 urte • Abuztuak 22
- Maria Aranzazu Arrieta Iriondo • 68 urte • Abuztuak 22
- Dionisio Txurruka Arozena • 88 urte • Abuztuak 31
- Carlos Egafia Irusta • 50 urte • Abuztuak 31

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekua) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo barixakurako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo **barren@elgoibarkoizarra.com** helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

Martxan da Kiribilen ikasturte berria

Jolas, dantza, eta eskulanetarako sei saio izango dira aurtan

Oporretako geldia ostean, bueltan da berriz Elgoibarko Izarra Elkartearen barruan Haur eta Gazteen arloak antolatutako Kiribil programa. Seigarren urtea beteko du aurtan, baina helburuak hasierako berak izango dira: 2 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten Elgoibarko familietan euskararekiko jarrera positiboak bultzatzea eta euskal giroa sustatzea. Udaberrian hasitakoari eutsiz, animaliak izango dira aurtengo gaia, eta haiek lagunduta, jolas, dantza, eta eskulanak egiteko sei saio izango dira barixaku arratsaldeetan Elgoibarko Plaza Handian, 17:30etik 18:30ak bitartean.



Irailaren 11n, 18an eta 25ean eta urriaren 2an, 9an eta 16an izango dira saioak. Saioak dinamizatzen, Kiribil barraskilo erraldoia eta lau kiribiltxo ariko dira. Bestetik, irailaren 25erako kultur ikuskizun bat ere antolatu dute: Txorro Morroren *Luma Gorri* ikuskizuna. Plaza Handian izango da hori, 17:30ean.

Gurasoentzako euskara ikastaroak, urritik aurrera

Herriko ikastetxeekin elkarlanean, gurasoentzako euskara ikastaroak antolatu dituzte Elgoibarko Euskara Sailak, Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak. Guztira hiru ikastaro antolatu dituzte: euskara ez dakitenei edota ulertzeko zein hitz egiteko nahikoa ez dakitenentzako, ahozko euskara hobetu nahi dutenentzako, eta azkena, euskaraz hobeto irakurri eta idatzi nahi duten lagunenentzako. Lehenengo ikastaro hori urrian hasiko da, eta ekainean amaitu. Gainerako bi ikastarok, berriz, 125 orduko iraupena izango dute. Hiru ordutegi jakin zehaztu dituzte, goizez eta arratsaldez. Nolahi ere, ordutegi horiek ikastaroetan parte hartu nahi dutenen beharretara egokituko direla aurreratu dute antolatzaileek.

Izena emateko epea irailaren 25ean zabalduko da, eta ikastaroak emateko, gutxienez zortzi laguneko taldeak osatu beharko dira. Argibide gehiagorako, AEK euskaltegira nahiz Udal Euskaltegira jo ahalko dute interesatuek.

Elgoibarko dantzarien erakustaldia

Haritz Euskal Dantzari Taldeko Dorleta Fernandez eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Maria Ferreiro lehiatu ziren joan zen asteburuan nagusien Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan, Zarautzen. Lehiaketan, hamar neskek parte hartu zuten, eta laugarren eta seigarren izan ziren Maria Ferreiro eta Dorleta Fernandez, hurrenez hurren. *Erribera* soinu zaharra, *Saltokako zortzikoa* eta *Kontrapasa* izan ziren dantzatu zituzten piezak. Bihar, berriz, Haritz Dantzari Taldeak, Debako Gure Kai eta Eibarko Kezka taldeekin batera, dantza ikuskizuna eskainiko du Lasturren, jaiak direla eta. Emanaldia, 20:00etan izango da.

ongarri zinekluba

donostiako

zinemaldiaren inguruan

irailaren 17tik 25arte. herriko antzokia



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ELGOIBARKO UDALA



ONGARRI ZINEKLUBA



Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarrari omenaldia egingo diote urriaren 8an

Elgoibarko Izarrak eta Udalak plaka bat bistaratuko dute jaiotetxean haren omenez

Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarra omenduko dute urriaren 8an Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak, Gotzon Garate Batzordearekin batera antolatutako ekitaldian. Egun horretan beteko da urtebete Gotzon hil zela, eta hark Euskal Herriaren eta euskararen alde egindako lan oparoa eskertzeko baliatuko dute eguna. Horretarako, 18:45ean Plaza Handian elkartzeko deia egin dute antolatzaileek, handik Gotzonen jaiotetxera joateko. Han, haren omenezko plaka bistaratuko dute, eta handik musika eskolara abiatuko dira, omenaldiari behar moduko amaiera emateko.

Omenaldian zuzenean parte hartzeko aukera izango dute herritarrek. Gotzon Garateri bi berba, esaldi bat, poesia bat, edo nahi dena esan nahi dionak aukera izango

du horretarako Elgoibarko Izarrara deituta (943 741 626) edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com e-postara idatzita. Esan eta idatzitako guztiak bilduko dituzte antolatzaileek, eta gero, omenaldi egunean, lau haizetara zabalduko dituzte.

Gotzon Garate Beka

Bestalde, Elgoibarko Udalak Gotzon Garate izeneko beka sortu du, euskara arloko ikerketa sustatu, eta aldi berean, idazle eta euskaltzale elgoibartarra goratzeko. Euskararen ezagutza, erabilera eta elikadura izango dira bekaren ikerketa esparruak, hizkuntza aberastea azken batean. Irailaren 30a izango da eskabi-deak eta dokumentazio osagarria aurkezteko azken eguna. Horretarako, Euskara Sailerari jo beharko da (Nafarroa plaza 3, 1. ezk).



'Genova' filmak hasiko du Ongarri zine klubaren Donostiako Zinemaldiaren gaineko zikloa



Filmeko irudia.

Donostiako Zinemaldiaren gaineko zine zikloa eskainiko du Ongarri Zine Klubak, irailaren 17tik aurrera. Iaz moduan, lau film emango dituzte aurten ere, denak ere Donostiako Zinemaldian emandakoak. Michael Winterbottomen *Genova* filmak hasiko du zikloa, hain justu ere iaz Donostiako Zinemaldian zuzendari onenaren Urrezko Maskorra irabazi zuen filmak. Alargun gelditu berritan, alabekin Italiara joango den gizon baten istorioa kontatzen du filmak. Beste bizimodu baten bila abiatuko dira Genovara, eta, han, alabetako batek sexualitatea deskubrituko du, eta besteak, amaren mamuarekin egingo du topo.

Zine zikloan emango diren gainerako hiru filmak honako hauek izango dira: Yesim Ustaogluren *Pandoranin Kutusu* —*La Caja de Pandora*—, Enrique Riveroren *Parque Vía* eta Marc Collenen *Tres días con la familia*.

Altzariak zaharberritzeko ikastaroa

Altzari zaharrak berritzeko eta birziklatzeko ikastaroa antolatu du Eskuz taldeak, Udalak diruz lagunduta. Urriaren 1ean hasiko da ikastaroa, eta eskolak martitzen eta eguenetan izango dira, arratsaldean. Izena emateko hiru telefono zenbaki jarri dituzte antolatzaileek: 943 740 801 eta 678 840 451 (Mertxe) eta 615 764 334 (Nieves).

Errosario kaleko kartel lehiaketa

Urriaren 6an hasiko dira Errosario kaleko jaiak, eta aurten, lehengo aldiz, jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Baldintza bakarra jarri dute: azalean *Errosario kaleko jaiak 2009* agertzea. Lizzy dendan utzi beharko dira lanak, irailaren 15a orduko. Irabazleak 300 euroko bale bat jasoko du, Errosario kaleko dendetan gastatzeko.

Mende oso bat Realari lotuta

Elgoibarren eta Mendaron ere ospatu dute mendeurrena

Realak ehun urte bete zituen astelehenean, hilaren 7an, eta Elgoibarko eta Mendaroko udalek bat egin zuten mendeurrenako omenaldiarekin. Klubaren proposamenez, Realaren ereserkia jarri zuten eguerdian udaletxeko bozgorailuetan, eta bandera ere esegi zuten.

Asko dira realzaleak gure artean, eta asko baita han jokaturakoak. Florentino Etxeberria izan zen Realaren ehun urteko historia oparoan bidea urratu zuen lehen elgoibartarra. 1928-29 denboraldian jokatu zuen Etxeberriak, eta haren ondotik etorri dira gero Beristain, Gabilondo, Suarez, Ansola, Arakistain, Gonzalez, eta beste hainbeste eta gehiago. Guztira, hamazazpi elgoibartarrek eta mendaroar batek —Iban Zubiaurre— jokatu dute talde txuri-urdinean. Gaur egun ere, bada Realean jokatzen duen elgoibartar bat: Markel Bergara. Harrobian hazitako mutila da Bergara, eta 2003ko irailaren 7an debutatu zuen Real Brekin, Osasuna Bren kontra. Guztira, 55 partida jokatu zituen Real Brekin. Ondoren, Eibarren ibili zen, lagata jokatzen, eta iaz

32 partida jokatu zituen Realaren lehen taldearekin. Espainiako selekzioarekin Europako txapelduna izan zen 19 urtez behar-koetan, eta 20 urtez azpikoen mundiala ere jokatu zuen, Herbehereetan. Aurten hirugarren denboraldia du lehen taldearekin.

Realaren historia osatzen lagundu duten elgoibartar eta mendaroarrak ageri dira aldameneko zutabean, baina Realaren zati dira, era berean, hamabostean behin, Anotarako bidea egiten duten dozenaka realzale. Izan ere, hiri oso batena ez ezik probintzia oso baten ikur ere bihurtu da Reala, urteen joan-etorrian. Elgoibarren, esaterako, lau autobus ere bete izan dira euren taldea ikustera joateko azken urteotan. Klubaren emaitzak ikusita, baina, ez da harritzekoa kopuru horrek behera egin izana azken hiru-lau urtean.

Historiako urte mikatzenak bizi ditu talde txuri-urdinak, orain hiru denboraldi maila galdu zuenetik. Garai oparoena, berriz, 1980eko hamarkada izan zuen ez-bairik gabe. Espainiako Liga eta Kopa birritan irabazi zituen, eta Superkopa ere lortu zuen.


Hamazazpi elgoibartar eta mendaroar bat Realen

Hona hemen Realean aritu direnen zerrenda, eta txuri-urdinen elastikoarekin jokatu dituzten partida kopurua.

- 1. Florentino Etxeberria Etxabe**. 1928-29 denboraldia Realarekin. Hiru partida jokatu zituen Realarekin.
- 2. Tiburcio Beristain Berriozabal**. 1931-32tik 1934-35era Realean. 110 partida jokatu zituen Realarekin.
- 3. Antonio Azpiazu San Martin**. 1940-41tik 1941-42ra. 22 partida Realarekin.
- 4. Jesus Gabilondo Agirre**. 1943-44tik 1946-47ra. 78 partida Realarekin.
- 5. Ricardo Suarez Irujo**. 1949-50etik 1955-56ra. 200 partida Realarekin.
- 6. Antonio Ansola Arrieta**. 1953-54tik 1960-61era. 141 partida Realarekin.
- 7. Jose Cruz Arriola Albizu**. 1953-54 denboraldia Realarekin.
- 8. Jose Arakistain Arrieta**. 1954-1955etik 1960-61era. 123 partida Realarekin.
- 9. Fernando Astigarraga Irujo**. 1961-62tik 1964-65era. 52 partida Realarekin.
- 10. Jose Gabiola Altuna**. 1959-60tik 1962-63ra. 39 partida Realarekin.
- 11. Jose Maria Arakistain Oñaederra**. 1969-70etik 1976-77ra. 151 partida Realarekin.
- 12. Fernando Ansola San Martin**. 1971-72tik 1974-75era. 93 partida Realarekin.
- 13. Luis Fernando Rodriguez Astigarraga**. 1984-85 denboraldia. Partida bakarra Realarekin.
- 14. Jose Luis Gonzalez Vazquez**. 1985-86tik 1991-92ra. 154 partida Realarekin.
- 15. Joseba Etxeberria Lizardi**. 1994-95ean. 7 partida Realarekin. Debuta: 1995ko urtarrilaren 29an, Españolen kontra.
- 16. Zuhaitz Gurrutxaga Loiola**. 2000-01etik 2003-04ra. 37 partida Realarekin. 2000ko urtarrilaren 23an debutatu zuen, Atletico Madrilén kontra.
- 17. Iban Zubiaurre Urrutia**. 2000-01etik 2005-06era. 20 partida Realarekin. 2003ko azaroaren 8an debutatu zuen, Oviedoren kontra.
- 18. Markel Bergara Larrañaga**. 2007-08tik Realean. 55 partida Realarekin. Debuta: 2007ko irailaren 4an, Las Palmasen kontra.



Jose Mari Arakistain




Markel Bergara



J.L. Gonzalez



Tiburcio Beristain



Jose Arakistain

David Soto izan zen Getaria-Zarautz proban aurreneko elgoibartarra

Hamahiru elgoibartarrek parte hartu zuten igeriketa proban



Getaria-Zarautz igeriketa probaren beste edizio bat jokatu da, eta elgoibartarren ordezkari zabal batek parte hartu du bertan. Iaz baino lau igerilari gehiago irten ziren, hamahiru guztira: hamabi gizonezko eta emakumezko bat. Elgoibartarren artean, eta iaz bezala, David Sotok egin zuen denborarik onena (47:23). Hona hemen, gainerako izen-abizenak, eta denborak.

Izena	Denbora
David Soto.....	47:23
Ibon Serrano.....	53:13
Joxean Agirre.....	59:53
Andres Alberdi.....	1:01:34
Juanjo Etxeberria.....	1:03:07
Iñigo Barrenetxea.....	1:03:16
Joxean Egaña.....	1:03:49
Lydia Bakaikoa.....	1:07:27
Jose Antonio Agote.....	1:10:46
Joseba Konde.....	1:18:54
Luis Mª Zubiaurre.....	1:19:42
Tomas Azpeleta.....	1:24:00
Jon Agirretxe.....	1:24:01

Morkaikoren Piriniotarako irteera

Morkaiko Mendizale Elkarteak Piriniotarako irteera antolatu du urriaren 10etik 12rako. Irteera hiru eguneko izango dela baliatuz, besteetan baino apur bat gehiago urrundu eta Estoseko bailara bisitatzearabaki dute. Ibilbideak berez ez du aparteko zailtasunik, eta parte handi bat GR11ren bide beretik egingo da. Hala ere, ondoko mendi batzuk igotzeko aukera ere izango da. Ibilbide guztian zehar, gain ikusgarriak begiztatzeko aukera izango da; hala nola, Gourges Blancs, Bachimala, Posets, Batoua-Culfreda eta Aneto moduko mendiak. Gehienez ere, 45 lagunentzako tokia izango da, eta nahi duenak lehenbailehen eman beharko du izena. Bazkideek 90 euro ordaindu beharko dute — 24 urtez azpikoek, 80 euro —, eta bazkide ez direnek, berriz, 100 euro.

Mintxetako hamakak jasotzeko azken eguna, gaur

Irailaren 13an bukatuko da Mintxetako igerilekuen denboraldia, eta aldagela ondoko lokalean hamakak gordetzen dituztenek gaur dute euren gauzak bertatik erretiratzeko azken eguna. Gaurtik aurrera, lokal horretan gordeta dauden hamakak zakarretara botako dituztela jakinarazi du Elgoibarko Udal Kiroi Patronatuak.

ESKERTZA

JESUSA IRASTORZA ITURRIAGA

“Andereño Jesusa”



*Iruzubietan jaiio.
Elgoibarren bizi.
Ikastolan andereño.
Uztailean joan zinen gure ondotik,
Agur Jesusa!
Bihotzean izango zaitugu beti!*

Senideak eta lagunak

2009ko uztailearen 22an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LANA

ESKAERA

- Emakume euskalduna esperientzia handiarekin pertsona nagusiak zaintzeko. Gauzez edo egunez. ☎943 744 433
- Magisteritza ikasten ari den eta aisialdiko hezitzailea den neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎679 237 611
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest, eta garbiketa lanetarako prest. Orduka. ☎648 603 029
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎618 163 061
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. ☎616 260 793
- Ingleseko klase partikularrak ematen dira, talde txikiak. ☎679 113 446
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest edo garbiketa lanetarako prest. Tituluduna. Orduka edo interna. ☎943 531 903 / 646 235 195
- Emakumea sukalde laguntzaile, diskotekako atezain edo zerbitzari lanetarako prest. ☎647 999 092
- Emakumea zerbitzari lanetarako, edota nagusiak zaintzeko prest. ☎617 808 245
- DBHko Gaztelania eta Matematikako klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎943 744 206
- Neska euskalduna prest pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko jai egunetan eta astebukaeretan. Klinika laguntzaile tituluarekin. ☎606 642 284

- Herriko mutila IMH mantenimenduko moduluarekin edozein lanerako prest. ☎680 912 542
- Interna moduan lan egiteko prest edo nagusiak zaintzeko prest. ☎699 813 826

ESKAINAZA

- Igeriketa Lantzen enpresak Elgoibarko kiroldegirako harrera postuan lan egiteko pertsonala behar du, astebukaeraketa ordezkapenak kubritzeko. Interesatuak igeriketantalantzen@igeri.net helbide elektroniko-ra kurrikuluma bidali. ☎943 743 196

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Buhardilla saltzen da Altzolan. Prezio onean 42.000 euro. ☎625 708 042

ALOKAIRUA

- Gela alokatzen da Eibarren. Zentrotik gertu. Bero-gailua, Wi-fi, etxean bi lagun izateko. ☎620 633 434
- Santa Ana kalean pisua konpartitzeko bi pertsona behar ditut. ☎658 700 164

- Pisua alokagai, Elgoibar erdialdean, 3 logela, al-tzariarekin eta igogailuarekin. 2.solairuan. ☎647 128 764
- Konpartitzeko edo alokairurako pisua biltzen da. ☎689 062 279
- Alokatzeko etxebizitza bat biltzen dugu Elgoibar edo inguruko herrietan. ☎677 023 673
- Ikasleentzako bi logela alokatzen dira Gasteizen. Erdigunean. ☎689 789 793

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Grajea salgai, San Roken. ☎676 719 705
- Pista Beltzean marradun garajea alokatzen dut. ☎653 863 482
- Opel Vectra 5 atekoa salgai, 2.2TDI Elegance, 96.000km, 2003koa, aire-girogailua eta telefonoarekin. ☎650 409 429

BESTELAKOAK

- Labadora eta hozkailu bana saltzen dira. ☎650 783 512
- Biolina saltzen da, funda eta arkoarekin.3/4, Gara S.V. 500. ☎626 977 934
- Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegainen, geltoki parean), Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 metro koadro, bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea ☎659 381 317

OHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



• Zorionak, **Jose Urrutia eta Edurne Abio**, abuztuaren 22an urrezko ezteiak egin zenituztelako.

Haurreko Eskola
www.haurrekoeskola.net

Matrikulazio epea zabalk
Irailaren 16tik 30era

Elgoibarko Haurreko Eskola
943 742 141




• Zorionak, **Claudia**, hilaren 6an 4 urte egin zenituelako. Etxekoan, Adriana eta amamaren partez.



• Zorionak, **Ana**, astelehenen 12 urte egingo dituzulako. Ondo pasa. Aitor, Luis eta Amaiaen partez.



• Zorionak, **Mikel**, asteartean urtetxo bat egin zenuelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **txapeldun**, 2 urtetxo egin dituzulako. Muxu pila etxekoan partez!



• Zorionak, **Maialen**, abuztuan 2 urtetxo egin dituzulako. Aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Ainhoa**, gure neska pinpirina, 8 urte bete dituzulako. Familiaren eta Mapiren partez.



• Zorionak, **Julen**, pasa den eguaztenean 2 urte egin zentuelako, muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure 7. urtebetetzean. Familiakoan partez.



• Dagoeneko 7 urte! Zein arin pasatu den denbora Su Ta Garren kontzertu hartatik. Zorionak, **Laidal**



• Zorionak, **Irati**, abuztuan 4 urte bete zenituelako. Anartzan, Itziarren eta familiakoan partez.




• Zorionak, **Nora**, abuztuan 28an zure urtebetetzea izan zelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Paula**, urtebete egingo duzulako. Aitaxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Janire**, 6 urte egin dituzulako. Etxekoan, eta bereziki Ion eta Maitaineren partez. Muxu bat.



• Zorionak etxekoan partez, **amama** Ederki ospatu genuen eguna.



• Zorionak, **Eneko**, abuztuan urteak egin dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, anaia Haritzen partez.



• Zorionak, **Joseba**, 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat.



• Zorionak, osaba **Pati**, hilaren 4an zure eguna izan delako. Eneko eta Haritzen partez.



• **Unaixo**, zorionak eta muxu pila bat zure lehenengo urtebetetzean. Senideen partez... pa!



• Zorionak, **Maddi**, hilaren 13an 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Ainhoa**, hilaren 3an 12 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Aimar**, abuztuan 6 urte egin zenituelako. Guraso, aitona-amona, izeba Marta eta Ixone.



• Zorionak, **June**, urtebete bat egin duzulako. Muxu handi bat! Segi horrelako panpoxa.



• Zorionak, **Iñitza**, zure 4. urtebetetzean. Muxu bat etxekoan, eta bereziki Aioraren partez.




• Zorionak, **Iker**, lau urte egin zenituelako. Muxu potolo bat etxekoan partez.



• Zorionak, **bikotel Irtsi da zuen eguna**. Zoriontsuak izan! Familiakoan partez.



• Zorionak, **Lara eta Daneli**, abuztuan 6 eta 9 urte egin dituzulako. Besarkada handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Maialen eta Beñat** etxeko guztien partez lgandean 4 eta 2 urte egingo dituzulako.



• Zorionak, **bikotel Leire eta Mikel**, oso ondo pasa zuen ezkontza egunean. Familiakoan partez.



• Zorionak, **bikotel Azkenean heldu da zuen eguna**. Ondo-ondo pasa. Familiakoan eta lagunren partez.



• Zorionak **Jon eta Nahia**, 3 urte egin dituzulako. Bere-ziki, Uxue eta Saioaren partez.

OKINDEGIA

13 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 11 Ibañez
- 12 Etxeberria (Errosario)
- 13 Etxeberria (Errosario)
- 14 Etxeberria (Santa Ana)
- 15 Fernandez
- 16 Yudego
- 17 Zabaleta
- 18 Etxeberria (Errosario)

IRAILA

6 domeka **FOTERO**

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez


Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO

GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.neten



11 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka egitasmoa

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta euren gurasoentzako saioa. Plaza Handian.

Zinema

22:00 Aire libreko zine

emanaldia

Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta, aire libreko zine emanaldia izango da. *Noche en el museo 2* pelikula eskainiko dute Altzolako elizako arkupean.

12 zapatua

Musika

17:30 Gaztelekuko festa

Haritz Sound System Dja, break-dance dantzariak eta graffiti emanaldia. Madalako parkean.

Zinema

22:00 Aire libreko zine

emanaldia

Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta, aire libreko zine emanaldia izango da. *La montaña embrujada* pelikula eskainiko dute Altzolako elizako arkupean.

13 domeka

Zaldi gainean

12:00 Zaldi ibilaldiak

Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta, zaldi gainean ibilaldiak egiteko aukera izango da. Altzolako Zelaia parkean.

LUDOTEKAKO EKINTZAK

BUELTATU GARA LUDOTEKARA!

Oraindik ezagutzen ez bagaituzu, zure zain egongo gara astelehenetik ostiralera 16:30etatik 19:30etara

«Genova»
(Ongarri zine-kliba)
17, eguena: 21:30
18, barixakua: 22:15

Erresuma Batua, 2008. Zuz.: Michael Winterbottom. Akt.: Colin Firth, Catherine Keener, Willa Holland. 94 min. Gizon alargun bat Italiara joango da alabekin, beste bizimodu bat hasteko. Alabek tako batek amaren mamua ikusiko du. Besteak, berriz, sexualitatea deskubrituko du. Iazko Zinemaldian zuzendari onenaren alorrean zilarrezko maskorra jaso zuen.



Gure gomendioa

Ibilaldiak zaldi gainean

Irailak 13, domeka, Altzolan

Zaldi gainean ibiltzeko aukera izango da datorren domekan, Altzolako Zubibai elkarteak, Iriondo tornilleriarekin eta Sansongua baserriko kideekin batera antolatuta. Ume eta nagusientzako ekitaldia izango da, eta ez da esperientziarik behar. Antolatzailleek esandakoaren arabera, inolako arriskurik gabeko ibilaldi laburrak izango dira. Norberak bere kaskoa eraman beharko du. Hitzordua eguerdiko 12:30ean jarri dute, Zelaia parkean.



Zerikasi

IKASTAROAK

Hip-hop ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Ikasleen arabera, euskaraz edo gazteleraz

Hasiera data: 2009-09-07

Non: Elgoibarren

Izena emateko: 943 744 415

Haurrentzako masaje tailerra

Norentzat: 0-6 urte bitarteko umeen gurasoentzat

Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz

Hasiera data: 2009-09-10

Non: Sorluzen

Izena emateko: 943 751 304

Web eta multimedia diseinatzailea

Norentzat: Langabetuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-09-14

Non: Eibarren

Izena emateko: 943 120 156

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a



Idama

Uztaileko irabazlea:

**JAIONE
TUDELA**

Abuztuko saria:
PLANTXAK



Idama

Abuztuko irabazlea:

**MAITASUN
JUARISTI**

Iraileko saria:
**GEMOTERAPIA
GORPUTZ-
MASAJEA**



Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) Tel.: 943 74 40 26

txatxaran

Break dance eta graffiti saioarekin hasiko du Gaztelekuak ikasturtea asteburu honetan



Maite, Joanes eta Josune dira Gaztelekuko hezitzaileak.

Amaitu zaio Gaztelekuari udako geldia. Hezitzaileek buru-belarri jardun dute azken egunotan den-dena prestatzen, lokala asteburu honetan irekitzeko. Madalan saio berezia eskainiko dute bihar. Domekatik aurrera normal-normal egongo da zabalik lokala.

Izan ere, bihar, zapatua, graffitigile batek erakustaldia eskainiko du Madalan, 17:30etatik aurrera. Ekitaldian, gainera, bospasei dantzarik break dance saioa eskainiko dute. Haritz Sound System DJk, berriz, musika jarriko du gazteentzako. Gaztelekuak girotzen lehana-
go ere egondakoa da disko-jartzailea.

Madalako emanaldiaren bidez, Gaztelekuko martxa berriro hasi dela jakingo dute Elgoibarko gazteek. Horrez gain, Gaztelekuko dinamika kaleratzea du helburu biharko ekimenak. Gurasoek eta he-

Oporren ostean, bihar bertan zabalduko dute berriro Gaztelekuak. Irekierarako saio berezia antolatu dute ekipamenduko arduradunek: break dance erakustaldia eta graffiti saioa Madalako parkean, 17:30etik aurrera. Horrez gain, Haritz Sound System disko jartzailea ere bertan izango da. Gaztelekuko dinamika kalera ateratzeko eta hezitzaileak nor diren jakiteko balio izango du ekitaldiak. Hezitzaileak ikasturteko programazioa prestatzeko buru-belarri ari dira lanean.

rritarrek hezitzaileak ezagutzeko modua izango da, azken batean. Maite Usabiaga, Joanes Rodriguez eta Josune Lasagabaster dira Gaztelekuko hezitzaileak.

Zinemaldira irteera

Gaztelekuko hezitzaileak urteko programazioa ari dira prestatzen. Ekintzen artean, Donostiako Zinemaldira irteera antolatzen dihardutela aurreratu dute. Hala ere, aurtan, irteerei baino, lokalean egoteari eman nahi diote lehentasuna, gazteek bertan egoteko go-
goa izaten dutelako.

Martitzenetik domekara egongo da lokala zabalik Gaztelekuak, 17:00etik 20:00etara (barixaku eta zapatuetan 21:00ak arte).



I. URTEURRENA

DELFINA ARRIOLA LETE

2008ko irailaren 7an hil zen.

*“Gure ondotik joan zinen.
Baina betiko izango zaitugu gure bihotzean”*

Meza, zapatua, hilak 12 arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome deunaren parrokian.



ZORIONAK!! ZORIONAK!! ZORIONAK!!

CAMBRIDGE-ko azterketan emaitza onenak lortu ditugu
2009-2010ko kurtsoko matrikula irekita

Zatoz eta eskatu informazioa!

I AM
TÚ ERES

هي ...

GU GARA

VOUS ÊTES
ELES SÃO

Elkar ulertzeiko, euskara.

EMEA BERE ENBEREKO HAZTEARRAREN, EUSKARA
TU UNBERTZAHAN DACH OTERA, EUSKARA
LÉVELS HAN. JAKOZ IZAN BAI HAN, JAKO
POUR VOUS COMPRENDRE MIEUX, EUSKARA
EMEA COMPRENDRE VOUS, EUSKARA



ELKARREN
BARRIO ANTZERKO
ENTZEE ORRALA

09-10 ikasturtea

09-10 ikasturtea

Matrikula zabalik

Ikastaroak / Cursos

- Aurrez asmatuak / Presenciales
- Autoikaskuntza / Autoaprendizaje
- [BOGA]
- Mistoak / Mixtas

Ikastaro bereziak / Cursos especiales

- Enpresak
- AISA (Etorriak / Inmigrantes)
- Merkataritza / Comerciantes
- Oribalaritza / Hosteleria

Euskara

Azterketetarako prestaketa

- Perlikak [Osoakidetzak, Hezikuntza, IVAP, Justizia, ...]
- HABEren 1, 2, 3 eta 4. mailak, TITULU OFIZIALAK
- EGA

16 urterik gorakoentzat

MATRIKULALDIA

Irailaren 1etik 25era

DIRULAGUNTZAK - BEKAK

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR : 09:00 - 13:00 / 15:30-19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa Enparantza 2

20870 ELGOIBAR

Tel. / Faxa: 943 742 731

E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

HERRI OMENALDIA, GOTZON GARATERI

urriaren 8an

